

Sagardoa modan dago nazioartean

Hasi berria den 2023 urte honetan nazioarteko lehiaketa, ekitaldi eta azoka ugari izango da, tartean Sagardo Forumaren bosgarren edizioa, azaroaren amaieran.

ASTIGARRAGA

gero eta gehiago dira nazioartean antolatzen diren sagardo lehiaketak, baita Euskal Herriko nazioarteko lehiaketa ere. Bertako sagardoa nazioartean gero eta ezagunagoa da, eta, horri esker, Euskal Herrian ekoiztutako sagardoak erreferentziarako lekua eskuratu dute nazioarteko sagardo lehiaketetan.

Horien artean, aipatzekoak dira Alemaniako Cider World lehiaketa eta azoka, Norvegiako Hardanger Internasjionale Siderfest eta NICA Norvegiar Cider Festival ekitaldiak, Portugalgo Idrama azoka, Asturiasko SISA lehiaketa, Britainia Handiko World Cider Awards lehiaketa, Australiako Cider Awards lehiaketa edota AEBetako CiderCon lehiaketa, besteak beste.

Hasi berria den urte honetan ere sagardoak bere lekua izango du nazioarteko hitzorduetan, eta dagoeneko ezagutzen dira sagardo lehiaketak, ekitaldiak ahiz azoka batzuen datak.

Urtarrilaren 31tik otsailaren 1ra CiderCon 2023 sagardo lehiaketa izango da Chicagon; apirilaren 28an eta 29an Cider World'23 lehiaketa eta azoka Frankfurtan; maiatzaren 11-13an Hardanger Internasjionale Siderfest 2023



Bi urtetik behin egiten den Sagardo Forumaren V. edizioa azaroan ospatuko da. GARA

Norvegiar; eta azaroaren amaieran, Sagardo Forumaren bosgarren edizioa Euskal Herrian.

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, «sagardoaren nazioartekotzean beste pauso bat eman eta gure lurraldeko sagardoaren kultura nazioartean sustatzeko, 2023ko azaroaren amaieran Sagardo Forumaren V. edizioa ospatuko da».

Aurreko edizioan bezala, hiru arlotan egituratuko da hitzordu garrantzitsua hau. Batetik, sagarrari eta sagardoari buruzko jardunaldi teknikoak izango dira,

bestetik, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da, eta, azkenik, Nazioarteko Sagardo Azoka antolatuko da.

Sagardo Forumak euskal sagardoaren kultura nazioartean kokatzeko funtzio garrantzitsua bete du orain arte, antolatzaileen hitzetan: «Gure mugetatik harago sagardoaren kultura ezagutarazi du, baina nazioarteko sagardoak hemen ere ezagutzera eman ditu, nazioarteko harremanak sendotu eta sagardoa ekoizten duten tokiekin Ciderlands sarea osatzera iritsi arte».

EUSKAL EKOIZLEEN NAZIOARTEKO SARIAK

CIDER WORLD 2022 (ALEMANIA):

- **Kupela:** Aingurak sagardoak eta Kupela Traditional Basque Cider sagardoak brontzea.
- **Petritegi:** Petritegi Euskal Sagardoak brontzea, Petritegi aparduna Brut Nature sagardoak zilarra eta Sugar Sugar Krash sagardoak urrea.
- **Zapiain:** Zapiain Premium Euskal Sagardoak urrea eta Bizi-Goxo 2015 izotzezko sagardoak urrea.

NORDIC INTERNATIONAL CIDER AWARDS 2022 (NORVEGIA):

- **Aburuza:** Aburuza Euskal Sagardoak brontzea eta Aburuza Euskal Sagardoa Premium sagardoak urrea.
- **Bizio:** Zelaia sagardoak brontzea, Pako sagardoak zilarra eta Basoa sagardoak urrea.
- **Gurutzeta:** Euskal Sagardoa Bio sagardoak brontzea, Gurutzeta Euskal Sagardoak zilarra eta Gurutzeta Gorenak sagardoak zilarra.
- **Petritegi:** Petritegi Suhar sagardoak brontzea, Petritegi Apardunak zilarra eta Sugar Krash sagardoak urrea eta bere kategoriako onenaren saria (zaporetako sagardoa).
- **R. Zabala:** R.80 sagardoak zilarra.
- **Oiharte:** Oiharte lupuludunak zilarra, Markesa Euskal Sagardo naturalak zilarra eta Oiharte Haritz Egurrean onduak zilarra.
- **Isastegi:** Isastegi Euskal Sagardoa Premium sagardoak zilarra.
- **Zapiain:** Bizi Goxo 2017 izotzezko sagardoak zilarra, Zapiain Euskal Sagardoa 2021 sagardoak urrea eta Joanes de Zapiain 2021 sagardoak urrea eta bere kategoriako onenaren saria (sagardo naturala).

SALON INT. DE LES SIDRES DE GALA 2022 (ASTURIAS):

- **Baldorba:** Sagardoz Baldorba Naturele sagardoak urrea.
- **Gartziategi:** Anne sagardoak zilarra.
- **Iturrieta:** Sagezti sagardoak Premium saria.
- **Kuartango:** Callabocas lupuludun sagardoak zilarra eta Su Sagardoak Premium saria.
- **Oiharte:** Markesa sagardoak zilarra.
- **Ola:** Sagezti sagardoak brontzea.
- **Petritegi:** Brut Nature sagardoak zilarra.
- **Txopinondo:** Cidre Pétillant sagardoak brontzea eta Sagarfir edariak Premium saria.

TEMPORADA DE TXOTX

Un auténtico placer

